



LOMCE

LEGE ORGANIKOAREN
AURREPROIEKTUAREN
AZTERKETA ETA
BALORAZIOA

AZAROA 2012

eguneratzea : maiatza 2013

Jesús Marauri

Xabier Garagorri

Arantxi Urretavizcaya

HEZKUNTZA KALITATEA HOBETZEKO LEGE ORGANIKOAREN AURREPROIEKTUAREN AZTERKETA ETA BALORAZIOA (LOMCE)

Txosten honen helburua LOMCEren aurreproiektuaren proposamenak aztertu eta baloratzea da, betiere Kristau Eskolaren ikuspegi pedagogikotik abiatuta:

- Hezkuntza kalitatea.
- Etapen, arloen/irakasgaien antolaketa.
- Curriculumaren eduki komunak.
- Hezkuntza ebaluazioa.

1) SISTEMAREN EGONKORTASUNA

Egun dagoen aniztasun ideologikoaz jakitun eta, aldi berean, gure eginez, Kristau Eskolan uste dugu beharrezkoa dela gobernu aldaketa bat dagoen bakoitzean **hezkuntza arloan etengabeko aldaketak saihestuko dituzten gutxieneko komun batzuk adostea**, batik bat hezkuntza eragileekin. Hezkuntza sistemak oinarritzko akordio politiko eta sozial bat behar du, ezegonkortasun eta jarraitusun eza saihesteko, eta, horrela, hobekuntza sendotzeko.

“Hezkuntza sistemaren erreforma honek mailakakoa eta zuhurra izan nahi du, sen onean oinarrituta eta denboran iraunkorra, haren arrakasta ikasleen emaitzen hobekuntza objektiboaren arabera neurtuko baita. Lege organiko hau hezkuntza komunitate osoaren elkarriketa ireki eta zintzo baten emaitza da” (2. or.).

Ez dirudi lege hau denboran iraunkorra izan daitekeenik, **haren arrakasta ikasleen emaitzek soilik neurtuko baitute, beste alderdi batzuk kontuan hartu gabe, eta ez da ere hezkuntza komunitate osoarekin egindako elkarrizketa ireki eta zintzo baten emaitza**, horretarako erabili den bide bakarra ministerioaren web orria izan baita. Legearen arabera zentzuzkoagoa izango zatekeen eskolei eta unibertsitateei zuzenean kontsultatu izana. *Azken hilabeteetan kontaktu batzuk izaten ari dira Administrazioekin eta hauek proposatutako aldaketa batzuk sartu dituzten Lege Organiko honen 3. zirriborroan, nahiz eta legeak sakonean berdin dirauen.*

Esperientziak nahiz aldaketari buruzko ikerketek segurtatzen dute **aldaketa gertatzen dela norbanakoak eta taldeak modu boluntarioan eta kontzientean inplikatzen direnean**, eta ez aldaketa inposatzen zaienean. Aldaketa gertatzeko beste beharrezko baldintza bat, aldi berean goitik beherako eta behetik gorakoak estrategiak erabiltzea da, denen partaidetza segurtatzeko.

2) HEZKUNTZAREN XEDEAK:

LOMCEren atarikoan agertzen den hezkuntza ikuspegiaren asmo aitortua da hezkuntzaren eginkizun edo xedeetako bati lehentasuna ematea, hain zuzen ere, **hazkunde ekonomikoari, merkatu globaleko lehiakortasunari eta enplegarritasun profesionalari** ekarpena egitea. *Nahiz eta jaso dituen kritikak direla eta, Legearen ataria aldatu eta hazkunde ekonomikoaz gain (aurretik jartzen jarraitzen du), garapen pertsonalaz eta integrazio sozialaz hitz egin, legea irakurtzen joan ahala argi ikusten da*

nahiz eta bere atarian garapen pertsonala eta integrazio soziala gehitu, bere helburua hazkunde ekonomikoa eta enplegarritasuna izaten jarraitzen duela.

Onargarritzat har liteke hori izatea lanbide heziketarako eta unibertsitate ikasketetarako ardatza, baina **ezin da inola ere oinarrizko hezkuntzaren ardatza izan**, eta oso eztabaidagarria da ere Batxilergorako ardatza izatea, xede izaera baino gehiago, izaera propedeutikoa baitu.

Hainbat proposamenetan zegoen adostasun handia hausten da, besteak beste, (UNESCO (1996), Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren Gomendioa (2006), LOE (2006), Loi d'Orientation (2005) eta Euskal Curriculuma (2006)); haietan baieztatzen da **Oinarrizko Hezkuntzak, pertsonak bizitzan zehar dimentsio guztietan garapen orekatua izateko oinarri sendoak segurtatu behar dituela** (norbanako gisa, gizartearen eta naturaren kide gisa).

Enplegua oinarrizko gaitasunak aplikatzen diren arloetako bat da, baina oinarrizko gaitasunek **ez dute ezein kasutan** ardatz horren inguruan bira egiten. Oinarrizko hezkuntzak belaunaldi berriak bizitza heldurako prestatu behar ditu, eta bizitza osoan zehar, egoera guztietan, pertsonak behar dituzten oinarrizko gaitasunen funtsak ezarri behar ditu, **pertsonak diren aldetik beren burua garatzeko, gizarteratzeko, baita herritartasun aktiborako, inklusio sozialerako, ikasketetarako eta enplegurako ere.** *Atarian aipatzen ditu baina legearen garapen eta zehaztapenetan, ez du esaten nola landuko diren.*

Lehentasuna ematen zaio enplegarritasunari garapen pertsonalaren ondoan, hezkuntza komunitatearen adostasuna bat hautsiz.

3) HEZKUNTZA KALITATEAREN KONTZEPTUA:

Hezkuntza kalitatea hobetzeko lege organiko honek **sinonimotzat jartzen ditu HEZKUNTZA KALITATEA eta IKASLEEN EMAITZA AKADEMIKOEN HOBEKUNTZA**. Hezkuntza kalitatea ebaluatzeko lehentasuna duen arloa ikasleen emaitza akademikoak izango dira.

“Erreforma honen helburu nagusia hezkuntza kalitatea hobetzea da, hezkuntza kalitatea “output”aren (ikasleen emaitzak) arabera neurtu behar dela dioen premisatik abiatuta eta ez “input”aren (inbertsio mailak, irakasle kopurua, ikastetxe kopurua, etab.) arabera (1. or.).

Ikasleen emaitzetan erantzukizun osoa jartzea **hezkuntzan inplikaturik dauden gainerako pertsonen erantzukizunak ez onartzeko da**. Bestalde, nazioarteko txosten guztietan, ikasleen emaitzak **beste faktore batzuen** arabera neurtzen dira (testuingurua, familiak, inbertsioa, ikastetxeen tipologia...).

Ikasleen **emaitzek** ez dute ezinbestean akademikoak soilik izan behar, nahiz eta hala ere izan behar duten. Bizikidetza, arazoei irtenbidea ematea, komunikazioa... halako emaitzak, azken batean, gaitasunei dagozkienak, ezinbestean ebaluatu behar dira.

Hezkuntza arloko aditu askok uste dute **kalitatezko hezkuntza sistema bat identifikatzen duen ezaugarri nagusietako bat ekitatea dela: sarrera ekitatea**

(bereizketarik gabe denei sarbidea bermatzeko), **ibilbide ekitatea** (denei beren beharretara egokitutako baliabide guztiak segurtatzea) eta **emaitzen ekitatea** (jatorrian dauden desberdintasunak errepika ez daitezen). LOMCEren kalitate kontzeptuan, ekitatea ez da aipatzen; ikasleen emaitzak hartzen dira kontuan soilik, eta ez dira ez ekitatea ez aukera berdintasuna bermatzen. *Nahiz eta hezkuntzaren ebaluazioa egiterakoan ez aipatu EKITATEaren ebaluazioa, Legearen 3. bertsio honetan, behin eta berriz saiatzen da EKITATE hitza aipatzen, minusbaliotasun bat duten pertsonen arreta berezia jarriaz. Bertsio berri honek zera esaten du: INKLUSIBOA, INTEGRATZAILEA ETA ZORROTZA den kalitatezko hezkuntza sistema batek soilik bermatzen duela aukera berdintasuna. Behin eta berriro esaten du ekitatea bilatzen duen legea dela, baina bere garapenean ikusten dugu ez dela horrela D.B.H. 3. mailan egiten duen segregazioa dagoen bezala mantentzen duelako beste gauza batzuen artean.*

4) HEZKUNTZA SISTEMAREN ZENTRALIZAZIOA

LOMCEri buruzko dokumentuetan sistema zentralizatzeko helburuaz berariaz hitz egiten ez bada ere, agerian jartzen da iragartzen diren gertakariekin:

- **Eduki komunak ugaltzea**, Estatu osorako gutxieneko irakaskuntza gisa. (6. art.).
- **Estatuaren protagonismoa hezkuntza ebaluazioetan**, oro har, eta, zehazki, ikasleen emaitzen ebaluazioan.
- **Informazio sistema estandarrak eta oinarrizko tipoak ezartzea**, prozesuak kudeatzeko eta ikaskuntzaren euskarri gisa.

Gobernu zentralari dagokio gutxieneko irakaskuntzaren maila izango duten **eduki komunak ezartzea**, “Autonomia Erkidegoekin lankidetzan” (61 aldaketa), Autonomia Erkidegoak hartuz “Hezkuntza Administrazio” gisa.

“Hezkuntza Administrazioen” eginkizuna, etapa eta ziklo bakoitzeko curriculumara osatzera mugatzen da, eta metodo pedagogiko propioak ezartzea. **Ikastetxeak**, LOMCEren arabera autonomia handiagoa emango zaienak, **maniobra eta erabaki tarte txikiarekin geldituko lirateke**.

Egiaztatuta dago EAEk, orain arte edukiak ezartzeko orduan beste autonomia erkidego batzuek baino autonomia handiagoa izan duen erkidegoak, emaitza hobek izan dituela kanpoko hainbat probek ebaluatu dituzten arlo guztietan. Argi dago **hezkuntzaren arrakastaren zati bat ikastetxeen autonomian oinarritzen dela** eta Hezkuntza Administrazioei zein ikastetxeei egiten zaien autonomia murrizte horrek, beraz, hezkuntzaren pobretzea besterik ez duela iragartzen.

Oso garrantzitsua da hautatutako **edukiek harreman zuzena** izan dezaten ikaslearen ingurunearekin, interesekin... eta, horretarako, konponbide egokiena edukiak ikasleengandik hurbilen dauden puntuetatik finkatzea da, besteak beste, ikastetxetik eta Hezkuntza Administrazioetatik.

Eduki komunak **implementatzen direla bermatzeko tresnak** ohikoak izango dira (goi ikuskaritza, hezkuntza ikuskaritza...), baina potentzialtasun handiena duen tresna **Gobernuaren eskumen eksklusiboa izango den kanpoko ebaluazioa izango da**, eta ikastetxeak behartuko ditu Gobernu zentralak markatutako eduki komunetatik ez ateratzera, ikastetxeak edukiak finkatzeko erabakian inolako autonomiarik gabe utzita.

5) IKASTETXEEN AUTONOMIA

“Ikastetxeen kalitatea bultzatzera bideratutako ekintzak sustatuko dira, autonomia indartuz eta zuzendaritzaren eginkizuna bultzatuz”.

Ikastetxeen **autonomia**, jakina, **hezkuntza kalitatearen bidelagunik onena da**, eta ikastetxeak, zalantzarik gabe, aldaketarako unitatea. Argi gelditzen ez dena da noraino iritsiko den autonomia hori, aurreko atala kontuan hartuz, non ikastetxeek **erabakitzeko izango duten tarte txikia ikusten den**. Autonomia horretan sar litezkeen **alderdi asko arautzeko dagoen gogo bizia** ikusi daiteke lege honetan.

Autonomia hori are gehiago murriztuko da **Gobernuaren eskumen eksklusiboa izango den kanpoko ebaluazioarekin**, Hezkuntza Ebaluaziorako Institutu Nazionalak ezarriko duena: ikastetxe bakoitzean Lehen Hezkuntzako 3. eta 6. mailetako eta DBHko 3. eta 4. mailetako ikasleek lortutako emaitzak argitaratuko ditu. 6.3/4 artikuluan egiazta daiteke ikastetxeen autonomia murrizteko asmo garbia dagoela etapen eta zikloen curriculum edukien garapenean, baita alderdi metodologikoak mugatzeko asmoa ere.

Ikasleei egiten zaien ebaluazio motak, **metodologiaren hautaketa ere murriztuko du**, ebaluazio hori Gobernuaren eskumena izango baita. Ebaluazio horrek zuzenean eragingo du gaitasunak eta edukiak eskuratzeko hautatzen diren metodologietan. Hori, gainera, ikastetxeen autonomian egingo den errefortzuari buruz esaten denarekin kontraesan dago. (6. art.).

EAEen Euskal Curriculumaren proposamena dago derrigorrezko eskolaratze aldirako, Kristau Eskolak, Ikastolek eta hezkuntza publikoko sektore batek batera landutakoa, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren lankidetzarekin. Hezkuntza sare eta sektore guztientzat proposamen komun bat. Modu boluntarioan konpetentzietan

oinarritutako eta euskal kultura espezifikoarekin lotuagoak dauden alderdiei buruzkoa den curriculum baten alde egiten dute.

6) HIZKUNTZA ESKUBIDEAK

*Hizkuntzaren inguruan aldaketa asko sartu dira legearen 3. bertsio honetan. Hizkuntza koofizialak, “**autonomia konfigurazio askeko**” ikasgai bihurtzen dira. Administrazioak, bai gaztelaniaz zein hizkuntza koofizialean hezkuntza jasotzeko eskubidea bermatzen duela ematen du. Gainera, hezkuntza bukaeran bi hizkuntzetan maila egokia izan behar dutela ere esaten du. Hizkuntza koofizialak ebaluatu egingo dira eta hauetan lortutako notak, Gaztelaren notaren balio berdina izango duela esaten du legeak. Hala ere, behin eta berriro errepikatzen du gaztelaniaz bakarrik ikasteko aukera administrazioak bermatu egin behar duela eta aukera hori hartzen duten ikasleek ez dutela zertan hizkuntza koofizialaren ebaluazioa egin beharko. Beraz, alde batetik, gaztelera ez den beste hizkuntza batean ikasteko aukera bermatzen duela dirudi baina beste aldetik, administrazioak gaztelera soil soilik ikasteko aukera bermatu behar duela errepikatzen du behin eta berriro. Atzerriko hizkuntzei ere bidea irekitzen die.*

“En aquellas Comunidades Autónomas que posean, junto al castellano, otra lengua oficial de acuerdo con sus Estatutos, los alumnos podrán estar exentos de realizar la evaluación del área Lengua Cooficial y Literatura según la normativa autonómica correspondiente. “

Honen arabera, badirudi nahiz eta ikasleak euskaraz ikasi edo behintzat euskara gai bezala eman, Euskara ikasgaiaren ebaluazioa ez dutela zertan egin behar.

Hizkuntza eskubideei eta kultura aniztasunari buruzko hainbat Adierazpen Unibertsal eta Europako Kartetan aitortzen den moduan, hizkuntzaren eta kulturaren transmisioa oinarritzko giza eskubide bat da, denen aldetik bermatu eta sustatu behar dena.

EAEn, hezkuntza komunitateak apustu sendo bat egin du **eleaniztasunaren** alde, eta jadanik hobekuntzak antzematen hasi dira eremu horretan. Frogatuta gelditu da kalitatezko eleaniztasun bat lortzeko, denentzako errezetek ez dutela balio eta beharrezkoa dela ikastetxeek lan sakon bat egitea. Horretarako, ezinbestekoa da ikastetxean bertan egin behar den **HIZKUNTZA PROIEKTUA**, kontuan hartuz ikastetxearen ezaugarri guztiak: hizkuntza ingurunea, ikasleen maila hizkuntza bakoitzean, irakasleen prestakuntza, hizkuntza paisaia, hizkuntza helburuak...

Alderdi horretan, komenigarria litzateke helburu batzuk markatzea, ikastetxeek erreferente batzuk izan ditzaten eta ikastetxeei hizkuntza helburu horiek lortzeko laguntza ematea, besteak beste, irakasleentzako prestakuntzarekin eta plan zehatzekin.

“Gaztelania edo hizkuntza koofiziala laguntza gisa erabiliko dira soilik atzerriko hizkuntzaren ikaskuntza prozesuan. Entzunezko ulermenak eta mintzamenak lehentasuna izango dute”.

Asmoa baldin bada atzerriko hizkuntza ikasteko orduan, derrigorrezko hizkuntzak erabiltzea laguntza gisa, hori, hain zuzen, hizkuntzak erabileraren poderioz ikasten direla dioen printzipioa baztertzea da. Esperientziak frogatu du **hizkuntza bat hobeto ikasten dela hura bakarrik erabiltzen bada ikasteko orduan**. Gainera, frogatu

da beharrezkoa dela **hizkuntzaren ikaskuntza ez diren beste irakasgai batzuetarako komunikazio hizkuntza gisa** ikasten diren hizkuntzak erabiltzea, hizkuntza hori eskuratu nahi bada (beti ere ama hizkuntza ez bada).

7) **IKUSPEGI PEDAGOGIKOA: GAITASUNEN ARABERAKOA VS KOGNITIBOA**

LOMCEren hezkuntza ikuspegia eta Erresuma Batuko hezkuntza sistemari egindako erreferentzia inplizituak kontuan harturik, **aurreikus daiteke oinarritzko gaitasunek gehiago edango dutela estandarren ikuspegi kognitibo anglosaxoitik, integrazioaren pedagogiaren ikuspegi soziokonstruktibotik baino**; hau da, jakintzei, egiten jakiteari eta eskuratzen jakiteari buruzko ikaskuntzak konbinatzea, egituratzea eta transferitzea egoera funtzional konplexuen konponbidera.

Gero eta globalizatuagoa den mundu honetako beharrei modu egokian erantzun ahal izateko, beharrezkoa da gure **ikasleak konpetenteak** izan daitezen eta **egiako egoera berri ugaritan erantzun zuzenak emateko gai izan daitezen erakustea**. Horretarako, beharrezkoa da ikasgelan gaitasunak lantzea, eta ez horrenbeste edukiak, nahiz eta argi gelditzen den gaitasunak garatzeko beharrezkoak direla edukiak.

Horregatik, Gobernuak finkatutako gutxieneko irakaskuntzak zein ikasleek etapa bakoitzean egingo dituzten ebaluazioak **gaitasunen garapenera bideratuta egon behar dira, edukiak buruz ikastearen erdua atzean utzirik.**

Gutxieneko irakaskuntzak homogeneousatzea, edukiak garapenaren gainetik jartzeko ahaleginaren ildotik joan liteke. Edukiak berdinduz pertsonen mugikortasuna

erraztu ahal izango dela pentsatzea huts egite bat da. Metodologiak eta ebaluazioaren bitartekoak gaitasunaren arlokoak badira, mugikortasun hori bermatuta gelditzen da. Izan ere, PISAko probak estandarrak dira guztiz bestelako eduki didaktikoak dituzten herrialde askorentzat.

LOMCEn gertatzen den bezala, Oinarrizko Hezkuntzak ikasleen enplegarritasunari egiten dion ekarpena lehentasunezkoa dela pentsatuz gero ere, hori lortzeko berme onena da **ekimen eta ekintzaile espirtuaren konpententzia garatzea da.**

Gaitasunetan oinarritutako hezkuntza enplegarritasunerako aukerarik onena da. Horregatik, **Gaitasunetan Oinarritutako Hezkuntzaren ikuspegitik, ez du inolako zentzurik “Irakaskuntza akademikoak eta Irakaskuntza aplikatuak” bereiztea.** Ikuspegi horretatik, curriculumaren ardatz antolatzailea ez dute “jakintza” akademiko kontzeptualek izan behar, baizik eta pertsonaren garapeneko dimentsio guztietan jokatzeko beharrezkoak diren gaitasunak (ez soilik lan arlokoak).

8) HELBURU NAGUSIAK

“Erreformatik bilatzen dituen helburu nagusiak, beraz, hezkuntzaren eta prestakuntza arloko bertan behera uzte tasak murriztea da, nazioarteko emaitzak hobetzea, ikasle bikainen eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako titulatuaren konparaziozko tasa hobetzea, eta ikasleen enplegarritasuna hobetzea”.

Ez da ekitateaz, garapen pertsonalaz, unibertsitateko ikasleen ehunekoaz... ezertxo ere aipatzen. Erreformaren helburuak ez dira hezkuntza komunitate osoak erabakitakoak eta agirietan biltzen direnak ((UNESCO (1996), Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren Gomendioa (2006), LOE (2006), Loi d’Orientation (2005), Euskal Curriculuma (2006)...). *Legearen atarian aipatzen dira 3. bertsio honetan baina legeraren garapena sakonean aldatu ez denez, argi geratzen da helburu hauek lege honentzat ez direla garrantzitsuak.*

Pertsonak bizitza osoan zehar bere dimentsio guztietan garapen orekatua izateko oinarri sendoak segurtatzea izan behar du **Hezkuntzaren xedea**. Hezkuntzak, batik bat, garapen pertsonalean oinarritu behar du; gainerako elementuak horren ondorioa izango dira. Horregatik enpresa arloko ekintzailatza Lehen Hezkuntzan sartzeak ez du inolako zentzurik pertsonaren garapenaren ikuspegitik.

9) HEZKUNTZA SISTEMAREN EBALUAZIOA

Lehenik eta behin, ebaluazio probak egiteak ez du zertan kaltegarria izan; hala ere, proba horiek **ñabardura negatiboak** izan ditzakete.

- Hezkuntza sistemaren ebaluazioaren xedeari dagokionez (140. art.), 140.1 atala mantentzen da, eta 140.2a (52. aldaketa) kentzen da, non esaten zen hezkuntza sistemaren ebaluazioen emaitzak ezin zirela erabili “ikasleen banako balorazioak egiteko edo ikastetxeen sailkapenak ezartzeko”. Atal hori kentzeak adierazten du **ebaluazioaren emaitzak erabili nahi direla ikastetxeen sailkapenak egiteko**. Emaitzak oso garrantzitsuak izanik, beharrezkoa da, gainera, ikastetxeen errealitate zehatza

ezagutzea; beraz, emaitzen argitalpenak **ez du hobekuntza egiazkorik ekarriko, baizik eta eskola batzuen etiketatzea.**

- Proba horien arriskua izan daiteke **pertsonak, irakasleak, ikasleak eta ikastetxeak etiketatzea; horrela, prestakuntza eta prestatzaile izaera galduko luke ebaluazioak.**

- Proba horiek, egiaz, **gaitasunen garapena bildu behar dute, eta ez soilik buruz ikastea eta edukien ezagutza.** *Legeak esaten du, froga hauek Europa mailan egiten diren beste froga batzuekin alderagarriak izango direla eta neurtuko dutena gaitasunak direla eta ez hainbeste edukiak.*

- Kontuan izan behar da hezkuntza arloko aditu askok azpimarratu egiten dutela **proba horiek** irakaskuntzaren denbora eraginkorra murrizten dutela; gainera, ikasleengan sortzen duten tentsioa eta estresa kaltegarriak dira haien motibazioarako eta probek ondorio desiraezinak izaten dituzte, besteak beste, ebaluatuak izateko irakasteko joera, hau da, **irakaskuntza egokitzea edo mugatzea ebaluatuko diren curriculumeko alderdietara.**

- Proba nazionaletan **ibilbide luzea duten herrialde askotan**, gaur egun, **irakasleak edo ikastetxeak egindako ebaluazioaren arteko eta nazio mailako proben eta azterketen arteko oreka** bat lortzeko politika eta estrategia zehatzak lantzeko prozesu batean aurkitzen dira. Gainera, sistema bilakatuz joan da; beraz, gero eta gehiago ari dira irakasleen ebaluazioa erabiltzen ikasleen errendimenduaren ordez.

- Hezkuntza sistemaren ebaluazioko arloei dagokienez (142. art.), esaten da “Lege honetan araututako hezkuntza arlo guztietara zabalduko dela” eta, ondoren, arlo horietako batzuk zehazten dira. Egia da Hezkuntzaren **Ekitatea** Legean araututa dagoela (II. Titulua) eta, beraz, ebaluazio arlo posible bat da, baina atentzioa ematen du **zehazten diren arlo ugariren artean modu esplizituan aipatu ez izana**, aditu askok uste baitute kalitatezko hezkuntza sistema bat identifikatzen duten ezaugarri nagusietako bat ekitatea dela.
- LOMCEn ez da aldatzen ikastetxeen ebaluazioari modu esplizituan aipamena egiten dion 145. artikulua. **Ikastetxeen ebaluazio planak landu eta gauzatzeko ardura, baita ikastetxeak babestekoa ere, Hezkuntza Administrazioei** dagokie.
- Ez da **ikastetxeen autoebaluaziori buruzko** aipamen espliziturik egiten. Autoebaluazioak zentzua du ikastetxe batek autonomia duenean erabakiak hartzeko, bai curriculum arlokoak bai kudeaketa arlokoak, eta Proiektu Propioa duen neurrian. LOMCEren Aurreproiektuak ez du Ikastetxearen curriculum arloko autonomia bultzatzen. **Ikastetxe bat kanpotik gobernatuta badago, ez du batere zentzurik autoebaluazioa egiteak.**
- Gobernuaren eta INEEren esklusibitatea, hezkuntza sisteman zein ikasleen emaitzen ebaluazioan, hezkuntza administrazioak eta ikastetxeak kontsulta mailara soilik baztertuz, **sistema zentralizatu eta autonomia kentzeko** modurik eraginkorrena da. Esperientziak frogatzen du ebaluazioa eragileekin negoziatu eta adostu ez den kasuetan, makina zapaltzaile huts bihurtzen dela eta ez duela hezkuntza kalitatearen hobekuntzan eragiten.

10) EKITATEA

Kalitatezko hezkuntzaren ezaugarri nagusietako bat Ekitatea da.

“Beharrezkoa da erreforma zentzudun eta praktiko bat, ikasle bakoitzaren ahalmena ahalik eta gehien garatzen utziko duena”.

Zehaztu beharko litzateke erreforma honek **ikasle GUZTIEN ahalmenak ahalik eta gehien garatu** behar dituela. Ekitatearen alde egin, eta ez soilik, kalitatearen alde. [Nahiz eta ekitate hitza sartu legean zehar, desberdintasunak eta bidegabekeriak bertan jarraitzen dute.](#)

“Ikasle guztiek dute talentua, baina bakoitzak duen talentuaren izaera desberdina da; beraz, hezkuntza sistemek beharrezko mekanismoak izan behar dituzte haiek antzeman eta sustatzeko”.

Ematen du **eredua LOGSEren ahalmenen printzipioetara itzultzen dela**. “Talentu” kontzeptua **gehiago hurbiltzen zaio ahalmenari haren garapenari** baino (gaitasuna). Garrantzitsua da ez soilik haiek antzeman eta sustatzea, baizik eta, batik bat, haiek garatzea ikasle bakoitzaren arlo pertsonalean eta eskola arloan, haren “talentu”aren gorabehera.

“Ikasleen trebetasunetan eta itxaropenetan dagoen aniztasun hori aitortzea lehen urratsa da ibilbide guztiak kontuan hartuko dituen hezkuntza egitura bat garatzeko. Erreformaren logika oinarritu egiten da ikasleen indarguneetara egokituagoak dauden ibilbideetarantz haiek bideratzeko gai den sistema bateranzko bilakaeran, haien nahiak

egia bihur daitezen eta enplegarritasuna errazten duten bideak bihur daitezen, ikasleek, gurasoek edo tutoreek garapen pertsonal eta profesionalerako aukera onenak hautatzeko aukeraren bitartez. Errendimendu arazoak dituzten ikasleek laguntza programa zehatzak izango dituzte, sisteman jarraitzeko aukerak hobetuko dizkietenak”.

“Ibilbide desberdinak” delakoak aukera berdintasunaren aurka doaz argi eta garbi, baita ikerketa zientifikoaren emaitzen aurka ere. Nazioarteko zientzia arloko ikerketa guztiek frogatzen dute ikasteko modu bakarra aniztasuna dela; **talde heterogeneoek homogeneoek baino emaitza hobekiago lortzen dituzte**. Lehenetsun gisa jartzen da berriro enplegarritasuna garapenaren ondoan.

“Aspirazioen” arabera berezitatutako ibilbide horiek ez dira soilik **murriztaileak**, baizik eta, batez ere, **bidegabeak**. Erabat galtzen dira ekitate eta espektatiba positiboaren printzipioak.

Arazoak dituzten ikasleek bakarrik izango dituzte **programa zehatzak**. Ikasle GUZTIAK ahalik eta gehien garatzeko moduko egitasmoak bultzatu behar ditugu, baina integrazio, inklusio eta normalizazio maila gorenekin.

“Nazioarteko azterlanek agerian jartzen dute beren hezkuntza sistemak bizkor samar hobetu dituzten herrialdeek curriculumaren sinplifikazioaren eta ezagutza instrumentalen errefortzuarekin lotutako neurriak ezarri dituztela, baita ibilbideak malgutu dituztela ere ikasleek beren gaitasun eta nahietara egokienak direnak aukera ditzaten; gainera, kanpoko ebaluazio sistemak garatu dituzte, errolda mailakoak eta denboran mardulak direnak, gardentasunaren handitzea...””

Argi eta garbi, emaitza onenak dituzten herrialdeek EZ dituzte ibilbide desberdinak etapetan.

Sistemaren ikuspegi hau da: erantzukizuna ikasleena soilik da, eta ibilbide desberdinetako ikasketak egingo dituzte haien “talentuaren” arabera. Horrek **desberdintasun sozialak izugarri areagotuko dituen** ikasleen elite bat sortuko du.

“Cuando no existan plazas suficientes, el proceso de admisión se regirá por los criterios prioritarios de existencia de hermanos matriculados en el centro o padres o tutores legales que trabajen en el mismo... No obstante, aquellos centros que tengan reconocida una especialización curricular por las Administraciones educativas, o que participen en una acción destinada a fomentar la calidad de los centros docentes de las descritas en el artículo 122.bis, podrán reservar al criterio del rendimiento académico del alumnos hasta un 20% de la puntuación asignada a las solicitudes de admisión a enseñanzas postobligatorias”.

Ekitatea ez da ziurtatzen. Ikasleen kalifikazioak ekitatearen eta eskubide berdintasunaren ginetik jartzen ditu behin eta berriz.

11) ALDAKETAK ETAPEN ANTOLAKETAN

LEHEN HEZKUNTZA: Zikloak desagertzea eta mailakako antolakuntza.

Nahiz eta abantailak izan ditzakeen egon litezkeen errepikatzeei begira, **desabantailak** handiagoak dira.

Ikaslearen garapen aldia eta eskolaren egutegi aldia ez doaz erritmo berean, eta ez dute zertan bat egin. Gainera, ikasle bakoitzaren garapena desberdina da. **Egokiagoa litzateke**, kontuan hartuz ikaslearen bilakaerak duen garapena, **Lehen Hezkuntza zikloka antolatzea**, haiei dagozkien azken ebaluazioekin eta ziklo bakoitzean egin beharreko kontu emateekin, eta ez maila bakoitzean. Garapen globalago bat eskaintzen da, diziplina arteko lanak egin daitezke, izaera inklusiboagoa du, denon arrakasta bultzatzen du...

BIGARREN HEZKUNTZA: Zikloka egindako antolakuntza mantentzen da. Hiru urteko lehen ziklo bat, eta urtebeteko bigarren ziklo bat.

Zuzena da zikloak mantentzea, baina ez horrenbeste haiekin egiten den banaketa eta haien helburua. **Zikloek hezkuntza eta pedagogia izaera izan behar dute, ikasleen ikaskuntzaren eta garapenaren bultzatzaileak izan behar dute, eta hemen izaera selektiboa eta ikasleen etiketatzeko joera du;** hori oso negatibotzat jotzen da.

“Al final de cada uno de los cursos de Educación Secundaria Obligatoria se entregará a los padres o tutores legales de cada alumnos un consejo orientado, que incluirá un informe sobre el grado de logro de los objetivos y de adquisición de las competencias correspondientes, así como una propuesta a padres o tutores legales o en su caso al alumno del itinerarios más adecuado a seguir, que podrá incluir la incorporación a un programa de mejora del aprendizaje y el rendimiento o a un ciclo de Formación Profesional Básica”

Este consejo orientados puede influir de manera determinante en las expectativas del alumnos, padres y también del profesorado limitando la igualdad de oportunidades del alumnos.

Ez du zentzurik DBHko laugarren mailak izaera propedeutikoa izatea, ikasleren batentzat amaiera izan daitekeenean; izan ere, titulu bat ematen da amaitzean. Derrigorrezko hezkuntzaren zentzua urratzen du, eta, gainera, lortutako inklusitibate printzipio guztien aurka doa.

BATXILERGOA: Bideak eta modalitateak aldatzen dira (Zientziak: Zientziak eta Ingeniaritzaren bidea eta Osasunaren Zientzien bidea). Humanitateak: Humanitateen bidea eta Gizarte Zientzien bidea). *3. Bertsio honetan 4 modalitate bereizten ditu: zientziak, gizarte zientziak, humanitateak eta arteak.*

12) ALDAKETAK ARLOTAN ETA IRAKASGAIETAN

LEHEN HEZKUNTZA: Ingurumenaren Ezaguera arloa Natur Zientzietan eta Gizarte Zientzietan atomizatzen da.

Eta honetan egokiena da **Unitate Didaktikoak egoera-proiektuka antolatzea, diziplina arteko edo globalizatuak diren planteamenduekin, eta ez irakasgaika.** PISA ebaluazioan, ikasleek zientzian duten gaitasuna ebaluatzen da, haien arteko inolako bereizketarik egin gabe. Gainera, bereizketak irakasgaiak ugaltzea ekarriko luke, eta hori ez dirudi estrategia egokia denik.

Herritartasunerako Hezkuntza izeneko irakasgaia desagertzen da.

Zentzu horretan prestakuntza egokia eskaini ordez, bat-batean desagertzen da.

BIGARREN HEZKUNTZA: Herritartasunerako Hezkuntzaren ordez, Gizabidezko Hezkuntza proposatzen da, baina irakasgaien **aldaketa proposamenak** zerikusia du **batez ere DBHko 3. mailatik aurrera ibilbideak sartzearekin**. Nahiz eta argi ez gelditu modalitatearen eta hautazkoen irakasgaiak zein diren, **modalitateko irakasgaiak oso eskaintza murrizta egiten dute, eta ikastetxeak autonomiarik gabe uzten dituzte** ere alderdi horretan.

“Como materia de opción, deberán cursar bien Matemáticas orientadas a las enseñanzas académicas, o bien Matemáticas orientadas a las enseñanzas aplicadas, a elección de los padres o tutores legales o en su caso de los alumnos”.

D.B.H.ko 3. mailan jada, matematika desberdinak jasoko dituzte Oinarrizko Lanbide Heziketaren ibilbidean edo Irakaskuntza Aplikatueta ibildidea egingo duten ikasleek. Nahiz eta 3. mailan jasotako matematika motak ez duen eraginik 2. zikloa aukeratzeko orduan, argi dago jasotako matematika motak influentzia izango duela aukeraketan. Honek, ibilbide aukeraketa lehenago egitea eragiten du (D.B.H. 3. mailan) .

LOMCEren arabera, Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloak izaera propedeutikoa du. Azpimarratu beharko litzateke Irakaskuntza akademikoen aukerak izaera propedeutikoa duela, helburua ikasleak unibertsitaterako prestatzea baita; horixe da hain zuzen egiten dutena Batxilergoa hautatzen dutenek. Aldiz, Oinarrizko Lanbide Heziketa ikasten dute ikasleentzat, azken ikasturteak ez du izaera propedeutikorik izango, printzipioz hurrengo urratsa laneratzea izango baita.

13) ETAPAKA EGINDAKO EBALUAZIOA

LEHEN HEZKUNTZA: LOMCEk aurreikusten du kanpoko ebaluazio diagnostiko bat egitea ikasle guztiei, prestakuntza izaera izango duena eta barnekoa izango dena, Lehen Hezkuntzako 3. mailan hizkuntz komunikazioan eta matematikan dituzten oinarritzko gaitasunen eskurapenari buruz, eta beste kanpoko ebaluazio bat, Lehen Hezkuntzako 6. mailan, etapako oinarritzko gaitasun eta helburu guztien eskurapenari buruz.

“En 3º de primaria, serán los centro docentes quienes realicen una evaluación individualizada a todos los alumnos según dispongan las Administraciones Educativas, en la que se comprobará el grado de dominio de las destrezas, capacidades y habilidades en expresión y comprensión oral y escrita, cálculo y resolución de problemas en relación con el grado de adquisición de la competencia en comunicación lingüística y de la competencia matemática.”

Hau da, 3. mailan ikastetxeek egingo dituzte ebaluaketak (lehen gobernu zentralaren eskumena) eta konpetentzia gehiagotan (lehen hizkuntz komunikazioan eta matematikan).

Hiru urteko bi zikloen aukeraren egokitasuna baloratzea izango da auzia. Kasu horretan, ziklo bakoitza kanpoko ebaluazio diagnostiko batekin burutuko litzateke, ikastetxe bakoitzaren barne ebaluazioa osa lezakeena. Aurreko atalean esan dugun bezala, ikasle bakoitzaren garapena desberdina da, eta Lehen Hezkuntza zikloa antolatzeak **ikasle bakoitzari laguntzen dio gaitasunak bere erritmoan garatzen**. Egokia da probak prestakuntza eta barne izaera izatea.

BIGARREN HEZKUNTZA:

- 3. mailan azterketa bat egingo da **ibilbideen hautaketarekin erlazio zuzena izango duten oinarritzko gaitasunen eskurapen maila egiaztatzeko**. Orduan hautatzen

dute ikasleek irakaskuntza akademikoak edo irakaskuntza aplikatuak egingo dituzten. Maila egokia lortzeko baldintzak betetzen ez dituzten ikasleentzat, Hasierako Lanbide Kualifikazioko Programak, Oinarrizko Lanbide Heziketa ordeztuko du.

“Baldintzak betetzen ez dituzten ikasleak...”. Proposamenaren idazketa guztiz desegokia da. Zer baldintza dira horiek? Fisikoak, adimen arlokoak, moralak, pedagogikoak...? Ez da ezein gakorik ezartzen baldintza betetzen dituztenen eta ez dituztenen baremoak ezartzeko.

LOEn, derrigorrezko hezkuntza DBHko 4. mailara arte luzatzen zen, nahiz eta azken ikasturteak izaera orientatzailea zuen, bai Batxilergo eta Lanbide Heziketako derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren ondoko ikasketentzat nahiz lan munduarentzat.

LOMCEren proposamenean, **ibilbideen dibertsifikazioa DBHko 3. mailan hasten da, eta DBHko 4. mailan sendotzen da**, bi aukeren artean hautatzen denean (Irakaskuntza akademikoak edo Irakaskuntza aplikatuak).

Irtenbide errazena ibilbideak sortzea da, **talde homogeenok** eratu **eskola baztertzeko duten ikasle atzeratuekin edo/eta ikaskuntza zailtasunak dituzten ikasleekin Oinarrizko Lanbide Heziketaren ibilbidean** (lan merkatua), **nahiko eta oso ongi apala duten ikasleekin** (etorkizuneko LHko apendizak) **Irakaskuntza Aplikatuetan** eta **ikasle bikainekin** (etorkizuneko batxiler ikasleak) **Irakaskuntza Akademikoetan**. Konponbide eroso da: Oinarrizko Hezkuntza amaitu aurretik, diagnostiko goiztiar batean oinarrituz, ikaslearen aukera berdintasuna mugatzen da.

Hazkunde ekonomikora, merkatu globalaren lehiakortasunera eta enplegarritasunera bideratuta dagoen LOMCEren ikuspegitik **ibilbide proposamen** hau baloratuz gero, badu zentzua. Aldiz, oinarrizko hezkuntzaren funtzio nagusia ikasleek egoera guzietan, bitzta osoan zehar, beren garapen pertsonalerako behar dituzten oinarrizko gaitasunak lortzea baldin bada, baita gizarteratzea eta herritartasun aktiboa ere, gizarte inklusioa, ikasketak eta enplegua, **ekitateari eta aukera berdintasunari kalte egiten dion ikuspegi okerra da.**

Aniztasunerako pedagogia onena ez dira ibilbideak, curriculum aniztasuna baizik.

- Ikasle guztiek kanpoko proba bat egingo dute Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloan (DBH 4) eta guztiek kanpoko azken ebaluazioko **bi aukeren artean hautatu ahal izango dute** edo biak nahi izanez gero (irakaskuntza akademikoen aukera edo irakaskuntza aplikatuen aukera), **DBHko 4. mailan egindako aukera zein den kontuan hartu gabe.** Tituluan DBHko 4. mailan egindako modalitatea zehaztuko da, berriz ere **ikasleak etiketatzeko asmo horri jarraiki.** Froga gainditzeko beharrezkoa da gutxienez 5 bat ateratzea (10tik, 5 bat froga gainditzeko). D.B.H.-en ateratako nota horrela kalkulatu da: %70 D.B.H.ko nota eta %30 kanpo ebaluazioan lortutako nota. Gainera, D.B.H.ko tituluan, ikasitako aukera (aplikatua edo akademikoa) eta lortutako nota agertuko dira.

DBHko 4. mailako ikasleek egiten duten aukerak modu zehatzean markatuko du ikasleen etorkizuna. Nola hautatuko dira ibilbideak? Ikaslearen eskumena izango da soilik? 3. mailako ebaluazioaren emaitzen arabera izango da aukera? Familiei emango zaien txostenak kalte handia ekar liezaieke ikaslearen beraren itxaropenei nahiz familien eta irakasleen itxaropenei, besteak beste, eta horrek **ondorio negatiboak izan ditzake ikaslearen ahalmenaren etorkizuneko garapenean.**

Erdi mailako lanbide heziketa egiteko beharrezkoa izango da, D.B.H. gaitua izateaz gain, kanpo ebaluaketa gaitzea. Irakasleen irizpidea ez da nahikoa? Kanpo ebaluaketa batek ziurtatu behar du ikasle horrek D.B.H.-en lortu beharreko kompetentziak dituela? Gainera ez da nahikoa izango D.B.H. gaitua izatea, beharrezkoa da Irakaskuntza aplikatuen bidetik egindako kanpo ebaluaketa egitea. Zer esan nahi du honek? Irakaskuntza akademikotik joan den ikaslea, D.B.H. bukatu eta gaitu eta gero ez dela erdi mailako gradu bat egiteko gai?

Ateak ixten zaizkio Batxilergoan sartzeko aukerari. Ikasle guztiek ez dituzte aukera berberak izango. Egiten duten aukera gorabehera, edozein aukeratako azken proba aurkez litezke ikasleak, baina arrazoizkoa ematen du irakasgai desberdinak izan badituzte, ez lituzketela aukera berberak izango. Horrek, ikasleak bereizteaz gainera, aukera berdintasunaren aurka doa.

BATXILERGOKO EBALUAZIOA: Batxilergoko titulua eskuratzeko, beharrezkoa da ikastetxeak kalifikatzen dituen Batxilergoko irakasgai guztietan ebaluazio positiboa lortzea. Balio haztatua % 60koa da, eta kalifikazioa gutxienez 5 puntukoa kanpoko azken ebaluazioaren 10 punturen gain. Balio haztatua % 40koa izango da.

Titulazioak lortzeko kanpoko probak egiteko derrigortasunarekin, ikastetxeek ikasleei ziurtagiriak emateko autonomia galtzen dute, eta hori atzerapauso bat litzateke ikastetxeen autonomiarentzat nahiz familiek ikastetxeenganako duten konfiantzan.

“La evaluación positiva en todas las materias del Bachillerato sin haber superado la evaluación final de Bachillerato dará derecho al alumno a obtener un certificado que surtirá efectos laborales y los académicos previstos en los artículos 41.2.b) 41.3.a) y 64.2.d) de esta ley orgánica)”

Beraz, nahiz eta Batxilergo titulua izateko kanpo ebaluazioa egin behar den, ikastetxeek “titulazio” mota bat emateko aukera izango dute kanpo ebaluazioa egiten ez duten ikasleentzako.

14) LH-REN PRESTIGIO GALERA

LOMCEk DBHn hiru ibilbide ezartzeko egiten duen proposamena (Oinarrizko Lanbide Heziketako Zikloa, Irakaskuntza akademikoak eta Irakaskuntza aplikatuak), ikasle guztiek oinarrizko gaitasunak lor ditzaten ibilbideak malgutzea baino gehiago, ikasleak haien “talentua”ren arabera lan mundurantz, LH ikasketetarantz edo Batxilergorantz goiz hautatzeko bide mozorrotu bat izan liteke; ondorioz, horrek **Lanbide Heziketaren aukerari prestigioa kentzeko arriskua ekar lezake**, OHOren planteamenduarekin gertatu zen bezala.

“Baldintzak betetzen ez dituzten” ikasleak Oinarrizko Lanbide Heziketara joango dira. Adierazpen horrekin **Lanbide Heziketaren prestigio galtze handia lortzen da**, ulertu egiten baita prestakuntza horretara iritsiko direla prestakuntza akademikoan jarraitzeko gaitasunik ez dutenak soilik.

Eskola porrotaren datuetan iruzurra egin daiteke, Oinarrizko Lanbide Heziketan dauden ikasleen datuekin, **baina, egia esan, ez zaie eskola graduatu titulua lortzeko mesederik egiten**, eta horrek aukera berdintasuna eta inklusitibate printzipioak murrizten ditu.

Oinarrizko LH derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako zati bada, zergatik **ez zaie DBHn Graduatu titulua lortzeko aukera ematen?** Ikaskuntza eta Errendimendu

programetatik titulura iristen uzten bazaie, nola da posible Oinarrizko LHtik ezinezkoa izatea? Egiaztatuta dago titulua lortu duten HLKPko hainbat ikasleren arrakasta, eta gradu ertaineko ikasketak arrakastaz egiten jarraitu dutenak, hau da, aukerarik ez ematea atzera joatea da.

Aipatu behar da, legearen 3. bertsio honetan, beste kurtso batzuetarako sarrera baldintzak malgutu eta erraztu egin direla. Hala nola, Oinarrizko Lanbide Heziketa ikasitako ikasleek, Erdi Mailako Gradu bat ikastera pasatzeko, aurreko titulua izateaz gain, sarrera froga bat pasatzea eskatzen zitzaien. Hau, legearen bertsio honetan desagertu egin da. Beste kurtso batzuetarako sarreran ere, froga bat pasa behar dela esan beharrean, prozedura bat pasa behar dela esaten dute. Hala ere, ez dute argitzen zein izango den prozedura.



1 eguneratzea (apirila 2013)



2 eguneratzea (maiatza 2013)